



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 19a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoan montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboan araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Foru Legea, Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixoen eta haien laguntzaileen satisfazio-inkestak presta ditzan, 2014ko ekainetik aurrera. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudi bat egin dezan “familia gurasobakar” izaeraren aitortpena arautzeko, behar diren laguntzak eta babes sozial eta administratiboak jaso ahal izateko aukera izan dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia betetzeari eta beste jarduera batzuei dagokienek. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zorionak ematen dizkio “América 66” mendi-ehiztarien erregimentuari, bere 250. urteurrenean. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da normalizazio- eta bizikidetasun-politika bat bultzatzea. Osoko Bilkurak bazter utzia (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Ebroren arroko 2010-2015 Plan Hidrologikoa errefusatzeko du. Osoko Bilkurak bazter utzia (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Garraiorako eskubidea, hau da, kalitate eta prezio egokian herritarren mugikortasuna bermatzea, aginte publikoen betebeharra da, eta arazo horri taxuzko irtenbidea ematen saiatu behar dute.

Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan, Foru Komunitateak erabateko eskumena du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 49.1.f) artikulua indarrez.

Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legeak konponbidea eman zien Iruñerriko metropolialdeko bidaiari-garraio erregularrak zituen disfuntzioei. Eskumen administratiboan banaketak sortzen zituen disfuntzio horiek. Izan ere, hiri garraioa, udalerrietako mugen barrukoa, udalen eskumenekoa zen –kasu honetan, Iruñeko Udalak bakarrik erabiltzen zuen eskumena–, eta hiri arteko garraioa, Iruñean eta metropolialdeko gainerako udalerrien artekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoa. Banaketa hori ez zen bat etortzen herritarren joan-etorrien benetako eremuarekin.

Foru lege horrek integrazio administratiboaren konponbidea arautu zuen, garraio agintaritzak bakarrik ezarri eremu osorako; hain zuzen ere, Iruñeko Mankomunitateari esleitu zion zerbitzuaren kudeaketa. Zerbitzuaren eremuan lehenetik zegoen eta beste zerbitzu publiko batzuk ematen zituen administrazio bat zen, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna zuena, eta udal-erakunde Mankomunitatean zuten partaidetzak bermatu egiten zuen haien autonomia.

Mankomunitateak Iruñerriko bidaiari-garraio erregularraren gaineko eskumen berri horiek 1999ko apirilaren 26an hartu zituen, eta eskualdeko hiri garraioko zerbitzu berria 1999ko uztailaren 26an abian jarri zen. Orduetik aurrera bertan behar gelditu zen hiri-zerbitzuen eta hiriarteko zerbitzuen arteko bereizketa.

8/1998 Foru Legeak eskualdeko hiri garraio zerbitzua planifikatzeko tresna bat taxutu zuen eta Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana deitu zion.

Foru lege horren 5.1 artikulua arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio Iruñerriko Hiriko Garraioaren urte anitzeko Plana onestea, eta zerbitzuaren titular den entitateak sustatu behar du plan hori; hots, Iruñerriko Mankomunitateak.

Denborak erakutsi du plana onesteko prozedura ez dela eraginkorra, eta ez da beharrezkotzat jotzen Nafarroako Gobernuak tutoretza hori egitea, plana entitate eskudunak berak onetsi beharko lukeelakoan; hori bai, foru lege honetan jasotako printzipioei men eginez.

Horregatik garrantzitsua da gogora ekartzea aipatutako printzipioek diotena: zerbitzuaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia etengabe hobetu behar dira, eta administrazio publiko guztiek lagundu behar dute kalitatea hobetzen; horretarako, planeamendu-tresnak onetsi eta garraio publikoaren abiadura komertziala hobetzeko ekintzak garatuko dira. Halaber, garraioaren erabilzaileek ordaindu beharreko tarifen bidez zerbi-

tzuaren kostutik zenbat estaliko den finkatzen da, eta gainerakoa nola banatuko den ukitutako administrazioen artean; hau da, Foru Komunitateko Administrazioaren eta udalen artean.

Banaketa horretan Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzearen arrazoi nagusiak dira, batetik, ekarpena egitea bere eskumenekoa izan zen hiriarteko garraioa mantentzeko –Iruñearen eta inguruko udalerrien artekoa–, eta bestetik, toki entitateek askitasun finantzarioa izateko ekarpena egitea, zeina, Espainiako Konstituzioaren 142. artikulua agintzen duen bezala, Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomia erkidegoek bildutako tributuen etekinak toki entitateei emanez gauzatu behar baita.

Bestalde, arautzen den garraioa hiri garraiotzat definitzen denez, Nafarroako Gobernuak zerbitzuematearen eremua alda dezake foru dekretuz, zerbitzu horrek Foru Komunitatearen eskumenei eragiten dielako.

Foru lege hau eman da Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak duen erabateko eskumenaz baliaturik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.f) artikulua indarrez.

Artikulu bakarra. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Iruñerriko Bidaia-garraio Erregularri buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 3. artikuluko 1. idatz-zatia:

“1. Foru lege honek arautzen duen hiriko garraioaren aplikazio eremua honako udalerrri hauek osatuko dute:

- Antsoain.
- Aranguren; hain zuzen ere, Mutiloako bizigunea.
- Barañain.
- Beriain.
- Berribeiti; hain zuzen ere, Aitzoango, Artikako, Berribeitiko eta Berriogoitiko kontzejuen eremua.
- Berriozar.
- Burlata.
- Zizur; hain zuzen ere, Zizur Txikiko Kontzejuaren eremua.
- Eguesibar; hain zuzen ere, Gorraizko eta Sarrigurengo biziguneak eta Olazko Kontzejua.

- Esteribar; hain zuzen ere, Ollokiko bizigunea.
- Ezkabarte; hain zuzen ere, Arreko eta Orikaingo kontzejuak.
- Galar; hain zuzen ere, Cordovillako Kontzejua.
- Uharte.
- Noain (Elortzibar); hain zuzen ere, Noaingo bizigunea.
- Orkoien.
- Iruña.
- Atarrabia.
- Zizur Nagusia”

Bi. 4. artikulua izenburua “Eskumenen araubidea” izanen da hemendik aurrera.

Hiru. 4. artikuluko 2. idatz-zatia:

“2. Iruñerriko Mankomunitateari dagokio foru lege honen xede den garraio publikoko zerbitzuaren titulartasuna eta berari esleitzen zaio zerbitzu hori kudeatu eta antolatzeko eskumena, aplikatu beharreko legediari jarraituz.

Udalerriek Iruñerriko hiriko garraio publikoaren zerbitzua emateko izanen duten integrazio epea 9 urtekoa izanen da, gutxienez”

Lau. 4. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatiak kentzen dira.

Bost. 5. artikulua kentzen da.

Sei. 6. artikulua ondoren kapitulu berri bat eransten da, II. bis kapitulu. Hona hemen:

“II. bis KAPITULUA

Zerbitzua planifikatzea eta hirigintza-planeamenduan integratzea

6. bis artikulua. Zerbitzua planifikatzea.

1. Foru lege honen xede den zerbitzua Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana izeneko tresnaren bidez planifikatu eta antolatuko da. Urte anitzeko plana izanen da eta Iruñerriko Mankomunitateak onetsiko du.

Onetsi aurretik, Iruñerriko Mankomunitateak plan hori Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari helaraziko die, azter dezaten eta ekarpenak egin ditzaten, hilabeteko epean gehienez ere.

2. Iruñerriko Hiriko Garraioaren Planean zehaztuko dira foru lege honen xede den zerbitzuaren ematea arautuko duten ildo nagusiak, bai eta programazio eta plangintzako oinarriko printzipioak

ere; eta, gutxienez, honako gai zehatz hauek ukituko ditu:

- a) Helburu eta irizpide orokorrak.
- b) Zerbitzuen plangintza.
- c) Inbertsioen programazioa.
- d) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.
- e) Tarifen markoa.
- f) Planaren helburuak lortze aldera zerbitzuaren titular den entitateari Foru Komunitateko Administrazioak eta foru lege honen aplikazio eremuko udalek egin behar dizkioten ekarpenak.

3. Garraio planak honako gidalerro hauek jarraituko ditu:

- a) Kalitatezko garraio zerbitzu publikoa ematea, eraginkortasun eta efizientzia egokiekkin.
- b) Garraio publikoaren erabilera sustatzea, hura hirigintza-planeamenduko tresnetan integrazuz.
- c) Zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzea, antzeko metropolialdeetan lortu diren emaitza onenen pareko balioak lortzeraino.
- d) Erabiltzaileei kobratzetik heldutako zuzeneko diru-sarrerak nahiz zerbitzuari lotutako bestelakoak.

Eskualdeko hiri garraioa erabiltzeagatik erabiltzaileek ordaindu beharko duten txartel-prezioa erabakitzerakoan, zerbitzu publikoa izateari ematen zaio lehentasuna, eta ez zerbitzuaren autofinantzaketari.

Zerbitzuaren zuzeneko finantzaketa ahalik eta handiena izan dadin bilatzean, finantzaketa hori zerbitzuaren erabilera masiboan oinarritzea bilatu beharko da, eta ez ordea txartelaren pixkanakako garestitzean, edozein dela ere txartelaren modalitatea.

Garraio publikoaren eskuragarritasuna eta indartzea bermatuta egon daitezen garraio pribatuaren aldean, erabiltzaileen txartelen bidezko zuzeneko zerbitzu-finantzaketa ez da inoiz ere zerbitzu-kostuaren ehuneko 50 baino handiagoa izanen.

Zerbitzuari lotutako diru-sarreratzat hartuko dira finantzaketarako baliabideak eskuratzeko bidea ematen dutenak, hala nola publizitatea, babesletza edo bestelakoak. Diru-sarbidetarik ezin izanen dute inoiz oztopatu edo arriskuan jarri zerbitzu-emate egokia.

Foru lege honetan 2014rako ezarritako ekarpena erreferentzia hartuta, etorkizuneko zerbitzu-ekitaldi ekonomikoak ixtean, idatz-zati honetatik heldutako diru-sarrerak ezarri den ehunekoa gainditzen badute, ezin izanen dira inola ere igo indarreko tarifak, ezta KPIra egokitzeko ere.

e) Ekarpenerak eta transferentziak, bai zerbitzuari atxikitako udalek eginak, bai zerbitzua ematen duen entitateak zuzenean eginak.

Zerbitzuari atxikita dauden udalek eta zerbitzua kudeatzen duen entitateak eginen dituzten ekarpen ekonomikoak kalkulatzeko, zerbitzuaren ustiapen-defizitari begiratuko zaio: ekarpen horiek defizit horren ehuneko 35ekoak izanen dira, behin idatz-zati honetako d) letratik heldutako diru-sarrerak kenduta.

Ekarpenera zuzenean eginen du entitate zerbitzu-emaileak, baldin eta baliabiderik badu eta kasuan kasuko bere organoek hala erabakitzen badute, edo zerbitzuari atxikitako udalek eginen dute, zeinek bere biztanle-kopuruaren proportzioan.

f) Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik heldutako transferentziak, helburu horretara lotuak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, urtero, behar den diru-kopurua ezarriko dute, izaera finalistaz, behin idatz-zati honetako d) letran jasotako ekarpenak kenduta kalkulaturako zerbitzuaren ustiapen-defizitaren ehuneko 65 estaltzeko.

g) Foru lege honen aplikazio eremuko udalerriei dagokien zatia bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera banatzea udalerriri horien artean. Gutxienezko zenbateko edo kuota finko bat ezarri ahalko da, zerbitzuaren gutxienezko eskaintza-maila ematean izandako kostua kontuan hartuko duena. Bestalde, ekarpen hori modulatu ahal izanen da, zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzeko eta garraio publikoa hirigintza-antolamenduan egoki integratzeko udal horiek hartzen dituzten neurrien arabera.

6. ter artikulua. Hirigintza-planeamenduan integratzea.

1. Lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnek Garraio Planean ezarritako helburu eta irizpide funtzionalak jasoko dituzte eta espazioan zehaztuko dituzte.

2. Garraio Planean aztertu eginen dira lurralde antolamenduko tresnek garraio publikorako ezarritako ibilbideak edo lehentasunezko trazaduren sarea, eta egokitzat jotzen diren aldaketak proposatuko dira zerbitzuaren etorkizuneko plangintzari begira.

3. Hirugarren artikuluan zehaztutako eremuko udalek sustapen lana egin beharko dute beren hiri-planeamendua lagungarria izan dadin garraio publiko eraginkorra, efizientea eta herritarrentzat eskuragarria sustatzeko. Halatan, zerbitzua behar bezala emateko behar den leku-erreserba eginen dute. Urbanizazio proiektuen bitartez planeamendua betetzerakoan elementu eta diseinu egokiak ezarri beharko dira, garraio publikoko zerbitzua hobetuko dutenak, bereziki haren abiadura komertziala. Horretarako garraio publikoa lehenesten duten neurriak ezarriko dira, hala nola:

- a) Autobus-errietarako erreserbak.
- b) Eskatu ahalako semaforo-lehentasuna emateko sistemak.
- c) Zirkulazio-erreian bertan gelditu ahal izatea; hots, baztergunerik gabe.
- d) Galtzadan abiadura motelarazteko sistemak ezartzea, beren diseinuagatik garraio publikoaren ohiko abiadura murrizten ez dutenak.

4. Iruñerriko Mankomunitateak lurralde eta hiri antolamenduko tresnen eta urbanizazio proiektuen gaineko irizpenak eman beharko ditu, haiek garraio publikoan duten eraginaren aldetik: zerbitzua emateko egiturazko beharrak eta behar operatiboak, haien finantzaketa eta bideragarritasun ekonomikoa, sare osoan duten eragina, eta garraio zerbitzuari eragiten dion beste edozein inguruabar.

5. Eskualdeko hiri garraio publikoaren zerbitzuen hobetzea nabarmena izan dadin kalitateari, kudeaketari eta kostuen murrizketari dagokionez, hori lortzea helburu izanen duten jardunbideei ekinen zaie, hala hirigintzaren arloan, nola bestelakoetan: trazadurak, ibilbideak, zerbitzuen abiadura, errei propioak, geltokiak eta abar. Horretarako, garraio publikoari emanen zaio lehentasuna, ibilgailu pribatuaren aldean.

Horretarako, foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, udalez gaindiko plan sektorial bat presatuko da, behar horiei aurre egiteko eta jarduketak gauzatzeko jardunbide guztiak bilduko dituena. Udalez gaindiko plan sektorial hori adostu eginen da zerbitzua kudeatzen duen toki entitatearekin.

Behin udalez gaindiko plan sektoriala onetsita, hurrengo bi ekitaldietan exekutatu da, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako jasoko diren kontu-sailen kargura”

Zazpi. 8. artikuluko 2. idatz-zatia:

“2. Garraio Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste

ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagoen gehikuntzarekin. Iruñerriko Mankomunitateak planaren eguneratzearen ondoriozko aurrekontu-beharrak ebaluatuko ditu; ebaluatze hori planean jasotako oinarriak erabiliz eginen da, eta indarrean diren kontratu eta konpromisoak aplikatuz, ekitaldi berriari buruzko aurreikuspenen mugapean. Luzapenetik heldutako ekarpenak aski ez badira horrela kalkulatu aurrekontu-beharrak orokorki orekatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ekarpenak eta foru lege honen aplikazio-eremuko udalen ekarpenek orekatu egin beharko dituzte aipatutako aurrekontu-beharrak; horretarako, proportzio berean doitu dira luzatzen den planeko azken ekitaldirako ezarritako aurrekontu beharrak”

Zortzi. Lehen xedapen gehigarriak testu hau izanen du:

“Lehena. Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean.

Foru lege honen aplikazio eremuko udalerriren batek Mankomunitatek ateratzea erabakitzen badu, Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana aldatzeko izapideak egin beharko dira, eta aldaketa horretan erabakiko da ea foru lege honetan araututako hiri garraio publikoaren kudeaketa-sistema bideragarria ote den gelditzen den eremurako.

Iruñerriko Mankomunitateak erabakiko balu gelditzen den eremuan sistema hori ez dela bideragarria, urtebeteko epean beste kudeaketa-modu bat sustatzeko eskatu beharko dio Nafarroako Gobernuari”

Bederatzi. Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak kentzen dira.

Hamar. Xedapen iragankorrak kentzen dira.

Xedapen gehigarria. Bonu soziala.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Iruñerriko Mankomunitateak bonu sozial bat ezartzeko proposamen bat eginen du; bonu horrek Gizarteratze-Errentaren taulak hartuko ditu erreferentzia.

Azken xedapenetan lehena. Arau osagarriak.

Foru lege honetan arautzen den bidaiari-garraio erregularrari dagokionez, bertan xedatuta ez dagoen orotan Errepideko Hiri barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

Azken xedapenetan bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duena

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen zaio, hamabosgarrena, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeari. Hona xedapen berri horren testua:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Osasun laguntza.

Iraungitzat deklaritzen da osasun laguntzako derrigorrezko estaldura, zeina Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24ko Erabakiaren bidez onetsitako Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Erregelamenduan ezarri baitzen, eta iraungitze horrek montepioetako funtzionarioak Osasun Sistema Nazionalean integratzen diren egunetik izanen du eragina”

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak. Zehazki, indargabetuta geldituko da, indardun dirauen neurrian, Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24ko Erabakiaren bidez onetsitako Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Erregelamendua, behin montepioetako funtzionarioak Osasun Sistema Nazionalean sartzen direnean.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea..

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena

Artikulu bakarra. Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen aldaketa.

Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen 5. artikuluko 2. idatzatik a) letra aldatzen da. Honela geldituko da:

“a) 16 urtetik beheitiko seme-alabak dituzten familia-unitateak”

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak modu integralean arautzen du kontratazio publikoa Nafarroan. Esleipen-prozedurak dira sistemaren giltzarrietako bat.

50. artikuluan ezartzen da zein diren lau prozedura posibleak: prozedura irekia, murriztua, negoziatua eta lehia-elkarrizketa; prozedura negoziatua izan daiteke publikitadeduna edo publikitaterik gabea. Prozedura negoziatua eta lehia-elkarrizketa, hala ere, Foru Legean bertan berariaz adierazitako kasuetan soilik erabili ahalko dira.

Kontuan izanda prozedura horiek oso sarritan erabiltzen direla (kontratuen ehuneko 60 baino gehiago egin dira prozedura negoziatu publikitaterik gabea erabilita, Kontratazio Publikorako Batzordearen Erregistroaren arabera, eta kontratatutako zenbatekoaren ehuneko 17 egiten du horrek), Nafarroako Parlamentuari iruditu zaio egokia dela, gardentasunaren eta aukera berdintasunaren printzipioen mesedetan, prozedura horiek beste modu batera arautzea, eta, horrela, bizi ditugun garaiotarako aproposagoak diren atalaseak ezartzea.

Horrenbestez, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aldaketa honek funtsezko bi helburu ditu. Batetik, lehenago esan denez, mekanismook hobetu nahi ditu, halako moduz non, zenbatekoak mugatuz eta publikitate-bitartekoetan funtsezko hobekuntzak eginez, mekanismo gardenagoak izanen diren, eta, era horretan, aukera-berdintasuna bermatuko duten. Bigarrenik, eztabaida baliatu da 73. artikulua egokitzeko gai horri buruzko Europako zuzentarau berrira; aldaketa horrek, era berean, legearen beste artikuluko batzuk doitu beharra ekarri du, multzoari koherentzia ematearren.

Aldaketa hau prestatzeko, kontuan hartu da Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren iritzia, halatan hobetzeko, ahal den guztian, Auzitegiaren lehenbiziko jardun-urtean agertu

diren zenbait alderdi oso bat ez datozenak kontratazioaren arloan sortzen diren beharrek; erraztu egin dira errekurtsoak jartzeko mekanismoak, eta hobetu, halaber, errekurtso horiei erantzuna emateko denbora-tarteak.

Artikulu bakarra. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aldaketa.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 8.4 artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“4. Enkarguaren xede diren lanen esleipenean interesa dutela frogatzen duten enpresek eta profesionalak kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztu ahaliko dute foru lege honen 210. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.”

Bi. 24. artikuluko 8. idatz-zatian beste lerrokada bat eranstean da. Hona testua:

“Era berean, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko metodoa ezin izanen da aukeratu 89.3 artikuluan jasotako publizitate-betebeharrak saihesteko asmoarekin”

Hiru. 73. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“73. artikulua. Europar Batasunean publiziterik ez duen prozedura negoziatua: erabilera kasuak.

1. Obra, hornidura eta laguntza kontratueta Europar Batasunean publiziterik ez duen prozedura negoziatua erabili ahaliko da honako kasu hauetan:

a) Prozedura ireki edo murriztu bati erantzuteko inolako partaidetza-eskaintzarik edo -eskaririk aurkeztu ez bada, edo egokia ez bada, kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez diren guztietan.

Eskaintza bat egokia ez dela ulertuko da kontraturako pertinentea ez denean, nabarmenki ez delako gai asetzeko, muntako aldaketarik egin ezean, botere entitate kontratatzailearen beharri-zanak eta baldintzak, kontratazio-orrietan zehaztuak. Partaidetza-eskari bat egokia ez dela ulertuko da baldin eta kasuko eragile ekonomikoa baztertuta geratu behar bada edo gera badaiteke, ahalmenik ez edukitzeagatik, kontratatzeo debekua edukitzeagatik edo entitate kontratatzaileak ezarritako kaudimen-irizpideak ez asetzeagatik.

b) Obra, hornidura edo zerbitzuak eragile ekonomiko jakin batek bakarrik ematen ahal baditu, honako arrazoi hauetako bat dela medio:

i) Kontratazioaren xedea izatea artelan bat sortzea edo erostea edo arte-emanaldi bakar bat egitea.

ii) Lehiarik ez egotea, arrazoi teknikoengatik.

iii) Esklusibotasun-eskubideak babestu behar izatea, jabetza intelektualerako edo industrialerako eskubideak barne.

Goiko ii) eta iii) azpiletretan aipatutako salbuespenak soilik aplikatuko dira arrazoizko beste aukera edo ordezkorik ez dagoenean eta lehiarik eza ez denean kontratazioaren parametroen murrizketatik artifizial baten ondorioz.

c) Urgentziaz izapidetzeko esleipen-prozeduren epeak aplikatuz egiterik egon ez bada, entitate kontratatzaileak aurreikusi ezin izan dituen gertakarien ondoriozko urgentzia larriagatik, eta behar-beharrezkoa den neurrian; urgentzia larria justifikatzeko alegatutako inguruabarrak ezin izanen zaizkie inolaz ere egotzi entitate kontratatzaileei.

2. Obra kontratueta ere Europar Batasunean publiziterik ez duen prozedura negoziatua erabili ahal izanen da ondoko kasuetan:

a) Beharrezkoak diren eta hasierako kontratazioan sartu gabe zeuden obra osagarrietan, hasierako kontratatzailearen kargura direnean. Baldintzak izanen dira kontratatzailearen ezinezkoa izatea, esaterako dagoen ekipoarekiko edo hasierako kontratazio-prozeduran erositako instalazioekiko edo zerbitzuekiko trukagarritasun- edo interoperatibitate-betekizunengatik, eta kontratatzailearen horrek entitate kontratatzaileari eragozpen handia edo kostu-igoera nabarmena ekartzea.

Hala ere, esleipen berri horietatik heldu den prezioa ez da hasierako kontratuaren balioaren ehuneko 50 baino handiagoa izanen. Jarduketa horiek ez dute xede izanen foru lege honetako xedapenak saihestea.

b) Obra berriak egin behar direnean, entitate kontratatzaile berek esleitutako hasierako kontratatzailearen enkargatutakoen antzekoen errepikapena direnak. Betiere, obra berri horiek oinarritzko proiektu bati lotuko zaizkio, eta proiektu hori prozedura ireki edo murriztu batean esleitutako hasierako kontratu baten xede izandakoa izanen da. Oinarritzko proiektu horretan aipatuko da zenbat obra osagarri egon daitezkeen eta zein baldintzatan esleitu diren. Prozedura hau erabili ahal izateko aukera jakitera eman behar izanen da lehen kontratuaren lizitazio-deialdiaren hasieratik beretik, eta entitate kontratatzaileek kontuan hartuko dute geroko obretarako aurreikusitako kostu osoa, kontratuaren balio zenbatetsia ezartze aldera. Hasie-

rako kontratua egin eta ondoko hiru urteko aldian baino ezin izanen da prozedura horretara jo.

c) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 600.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 30.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen da faktura aurkeztea, besterik gabe.

3. Laguntza kontratuetan, halaber, Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua erabiltzen ahalko da ondoko kasuetan:

a) Beharrezkoak diren eta hasierako kontratazioan sartu gabe zeuden zerbitzu osagarrietan, hasierako kontratistaren kargura direnean. Baldintzak izanen dira kontratistaz aldatzea ezinezkoa izatea, esaterako dagoen ekipoarekiko edo hasierako kontratazio-prozeduran erositako instalazioekiko edo zerbitzuekiko trukagarritasun- edo interoperatibitate-betekizunengatik, eta kontratista-aldaketa horrek entitate kontratatzaileari eragozpen handia edo kostu-igoera nabarmena ekartzea.

Hala ere, esleipen berri horietatik heldu den prezioa ez da hasierako kontratuaren balioaren ehuneko 50 baino handiagoa izanen. Jarduketa horiek ez dute xede izanen foru lege honetako xedapenak saihestea.

b) Zerbitzu berriak egin behar direnean, hasierako kontratua duen kontratistari entitate kontratatzaile berek enkargatutakoen antzekoen errepikapenak direnak. Betiere, obra horiek oinarritzko proiektu bati lotuko zaizkio, eta proiektu hori prozedura ireki edo murriztu batean esleitutako hasierako kontratu baten xede izandakoa izanen da. Oinarritzko proiektu horretan aipatuko da zenbat zerbitzu gehigarri egon litezkeen eta zein baldintzatan esleitu diren. Prozedura hau erabili ahal izateko aukera jakitera eman behar izanen da lehen kontratuaren lizitazio-deialdiaren hasieratik beretik, eta entitate kontratatzaileek kontuan hartuko dute geroko zerbitzuetarako aurreikusitako kostu osoa, kontratuaren balio zenbatetsia ezartze aldera. Hasierako kontratua egin eta gero, hiru urteko aldian baino ezin izanen da prozedura horretara jo.

c) Proiektu lehiaketa baten irabazleari laguntza kontratua esleitu behar zaionean, lehiaketari buruzko arauak aplikatzearen ondorioz. Proiektu lehiaketaren irabazleak bat baino gehiago badira, denei egin behar zaie negoziatorako gonbita.

d) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 75.000 eurokoa duten kontratuetan. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 6.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa aparte 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan, faktura aurkeztea besterik ez da eskatuko.

4. Hornidura kontratuetan ere Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua jo ahalko da:

a) Dena delako produktuak fabrikatzen direnean ikerketak, esperimentuak, azterlanak edo garapen-lana egiteko bakarrik. Edonola ere, xedapen honen arabera esleitutako kontratuak ez dute barne hartuko serieko ekoizpena, helburu duena produktuaren merkataritza-bideragarritasuna ezartzea edo ikerketa eta garapeneko kostuak berreskuratzea.

b) Hasierako hornitzaileak entrega gehigarriak egiten dituen hornidura edo instalazioen zati bat berritzeko edo, bestela, lehendik diren hornidura edo instalazioak gehitzeko, hornitzaile-aldaketa batek ezaugarri tekniko desberdinak dituen hornidura erostera behartzen duenean entitate kontratatzailea, horrela bateraezintasunak edo erabili eta mantentzeko zailtasun tekniko handiak sortzen dituelarik; halako kontratuen iraupena, eta kontratu berriztagarriena ere, gehienez hiru urtekoa izanen da oro har.

Horrelakoetan, frogatu beharko da ezin dela beste hornitzaile batekin kontratatu arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik, esaterako dagoen ekipoarekiko edo hasierako kontratazio-prozeduran erositako instalazioekiko edo zerbitzuekiko trukagarritasun- edo interoperatibitate-betekizunengatik, eta ezinezkoa dela eragozpen handia edo kostuak nabarmen igotzea dakarrelako entitate kontratatzailearentzat.

Hala ere, kontratua aldatzetik heldu den prezio-igoera ez da hasierako kontratuaren balioaren ehuneko 50ekoa baino handiagoa izanen. Zenbait aldaketa segidan eginez gero, muga hori aplikatuko zaio aldaketa bakoitzaren balioari. Aldaketa horiek ez dute helburu izanen foru lege honetako xedapenak saihestea.

c) Lehengaien poltsa batean kotizatu eta erositako hornidurak direnean.

d) Baldintza bereziki onuragarrietan erositako hornidura edo zerbitzuak direnean, dela merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile bati erositakoak, dela kaudimengabezia prozedura bateko administratzaile bati, dela

hartzekodunekiko hitzarmen baten kariatara edo lege nahiz erregelamendu xedapenetan dagoen izaera bereko prozedura baten kariatara.

e) Balio zenbatetsia, BEZa aparte, gehienez 75.000 eurokoa duten kontratueta. Balio zenbatetsia, BEZa aparte, 6.000 eurotik gorakoa ez bada, izapide hauek bakarrik egin beharko dira: aurretiaz kreditua erreserbatzea, aplikatu beharreko aurrekontu legeen arabera, eta faktura aurkeztea. BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratueta nahikoa izanen da faktura aurkeztea.

5. Halaber Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatuaren bidez lizitatu ahalko dira Europar Batasuneko atalasetik beherako zenbatekoa duten kontratuak, 71. artikuluan adierazitako kasuetan.

6. Debeku izanen da enpresa edo profesional berari administrazio berak aurrekontu-ekitaldi berean faktura bidez edo kreditu-erreserbadun faktura bidez esleitzea kontratu-kopuru bat zeinaren zenbateko metatuak honako mugak gainditzen dituen: 80.000 euro, BEZa aparte, obren kasuan, eta 30.000 euro, BEZa aparte, gainontzeko kontratueta."

Lau. 89. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"3. Prozedura negoziatua Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragartzen ahalko da, eskaintza aurkezteko informazioa zein helbidetan jaso daitekeen adierazita. Iragarki horrek ez du prozeduraren funtsa hutsalduko. Hala ere, Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragarki hori paratzea nahitaezkoa izanen da, baldin eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak, foru lege honetako 73. artikuluan ezartzen diren mugak gainditu gabe, 200.000 euroko muga gainditzen badu obra-kontratuaren kasuan, BEZa aparte, eta 60.000 eurokoa, BEZa aparte, gainontzekoetan."

Bost. 193. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Europar Batasunean publizitaterik ez duen prozedura negoziatua erabiliko da 73. artikuluan adierazitako kasuetan."

Sei. 210. artikuluko 2. idatz-zatiaren c) letra aldatu da. Testu hau izanen du:

"c) Hamar egun natural, kontratuaren esleipena argitaratu eta biharamunetik hasita, lizitazio iragarria argitaratzea aginduzkoa ez denean, edo ente instrumental bati enkargua egiteari buruzko iragarria argitaratu eta biharamunetik hasita."

Zazpi. 210. artikuluko 3. idatz-zatiaren d) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

"d) Bitarteko instrumental propioei enkarguak egitea, edo kontratuan aldaketak egitea –aldaketa horiek hasierako kontratuan aurreikusita egon edo ez–, baldin eta foru lege honetan agindutakoa urratuz egiten badira eta kontratu publiko baten lege kanpoko esleipena badakarte edo ekar badezakete. Kontratuaren aldaketen kasuan, erreklamazioa egiteko legitimazio aktiboa soilik izanen dute hasierako kontratuaren lizitazioan onartutako lizitatuzaileek."

Zortzi. 212. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

"212. artikulua. Erreklamazioa izapidetzea.

1. Erreklamazioa telematikoki aurkeztuko da, Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari zuzendua, erregelamenduz zehazten diren baldintzak betez, foru lege honetako 210.2 artikuluan ezarritako epeetan, eta helbide elektronikoko bat emanen da jakinarazpenetarako.

Erreklamazio idazkiari honakoak erantsi beharko zaizkio:

a) Aurkaratzen den egintzaren komunikazioaren edo jakinarazpenaren kopia bat, edo egintza horren argitalpenaren zehaztapena, adierazita zer prozeduratan izan zen egintza hori edo zer datatan argitaratu zen iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

b) Agiri bat, auzian agertutakoaren ordezkaritza eta erreklamazioa jartzeko legitimazioa frogatuko dituen.

c) Bere eskubidea oinarritzen duen agiria edo agiriak, eta erabili nahi dituen gainerako frogabideak.

d) Behar izanez gero, kautelazko neurrien eskaera.

Erreklamazioa jartzea doanekoa da; ez dago inongo tasarik ez erreklamatuzailearentzat, ez entitate erreklamatuarentzat.

2. Erreklamazioa osagabea bada, bi egun balioduneko epea emanen da hura osatzeko.

3. Behin erreklamazioa jarrita, Auzitegiko Idazkaritzak egun horretan bertan emanen dio horren berri kontratazio-organismoari, eta erreklamazio-idazkiaren kopia igorriko dio. Halaber, kontratazio-espeditentea edo kontratuaren dokumentazioa eskatuko dio kontratua izapidetu duen entitateari, eta azken horrek ondorengo bi egun balioduneko epean igorri beharko dio, bere eskubideak aldezteko egoki deritzen alegazioekin batera.

Espeditentea ez bada osorik epe horretan igorritzen, erreklamazioa ebazteko epea etenda geldituko da.

ko da espedientea osorik igorri arte. Kasu horretan, etena gehienez ere bost eguneko izanen da, eta behin egun horiek pasatuta, Auzitegiak izapideekin jarraituko du. Horrek ez du esan nahi, hala ere, kontratazio-espedientea igortzeko ardura zuten pertsonak ez dutenik erantzukizunik izanen; erantzukizun hori administrazio publikoren baten zerbitzuan lan egiten duten langileena den kasuan, indarreko legediak ezarritakoaren arabera eskatuko zaie. Administrazio publiko ez diren entitateen kasuan, aplikatzekoa den araudiaren arabera eskatzen ahalko da erantzukizuna.

Espedientea aurkibide batekin aurkeztuko da, non kronologikoki ordenatuta zerrendatuko diren espedientea osatzen duten artxiboak; prozeduran parte hartutako lizitzaile guztiak bilduko dituen zerrenda bat ere erantsiko da, bakoitza bere helbide elektronikorekin.

4. Administrazio espedientea edo kontratuaren dokumentazioa jasorik, erreklamazioa gainerako interesdunei jakinaraziko zaie, hiru egun balioduneko epean bidezkotzat jotzen dituzten alegazio edo frogak aurkez ditzaten. Horri dagokionez, interesdunek posta elektronikoko konturik ez badute, nahikoa izanen da alegazioetarako epea Nafarroako Kontratazioaren Atarian ezartzea.

5. Interesdunek eskatzen badute edo prozedurak hala exijitzen badu, frogaldi bat egotea erabakitzen ahalko da, bost egun balioduneko gehienez ere, egoki jotzen den frogara egin dadin; frogak egin aurretik, interesdun guztiei emanen zaie horren berri. Auzitegiak ukatu egin dezake proposatutako frogara, baldin eta ez badu egokitzat edo beharrezkotzat jotzen. Frogara kontraesanaren printzipioaren arabera gauzatuko da; egoki jotzen den edozein agiri aurkeztu ahalko da. Behin frogara eginda, frogara horren balorazioa egingen da, eta aldeek, bi eguneko epean, beren behin betiko pretesioak aurkeztuko dituzte. Frogara egitearen ondoriozko gastuak frogara egitea eskatu zuenak ordaindu beharko ditu. Frogara egiten den denbora-tartean, etenda geldituko da Auzitegiak ebazpena emateko duen epea.”

Bederatzi. 213. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“213. artikulua. Erreklamazioa ebaztea.

1. Erreklamazioari buruzko ebazpena hogeita egun balioduneko epean emanen da, hura aurkeztu denetik hasita. Epe hori iragan eta ebazpenik jakinarazi ez bada, ulertuko da erreklamazioa ezetsi dela.

2. Prozedura amaitzen duen ebazpena eskararen arabera izanen da, eta bertan, behar

bezala arrazoituta, esleipen prozeduran lege kanpo hartu diren erabakien deuseztatzeari buruz ebaztuko da, bai eta bereizkeriazko ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzarioak honakoetatik kentzeari buruz ere: lizitazio iragarkitik, aldiroko iragarkietatik, administrazio klausulen eta agindu tekniko partikularren agirietatik, kontratua arautzeko baldintzetatik edo lizitazioarekin edo esleipenarekin zerikusia duten gainerako agirietatik. Auzitegiak erabateko deuseztasuna dagoela uste badu, horri buruzko ebazpena emanen du, aldeek alegatu ez dutenean ere; betiere, interesdunak horren jakinaren gainean jarriko ditu, eta hiru egun naturaleko alegazio-epea emanen die.

3. Erreklamazioa ez onartzeko arrazoiak honakoak izanen dira:

a) Epez kanpo aurkeztea.

b) Erreklamazio-egileak legitimaziorik ez izatea.

c) Eskabidearen akatsak ez zuzentzea.

d) Auzitegiak eskumenik ez izatea.

e) Erreklamazioak inolako funtsik ez izatea.

f) Foru lege honetan edo bere garapen-araudian ezarritako bide telematikotik kanpo aurkeztea.

4. Auzitegiak hautematen badu ausarkeriaz edo fede txarrez jokatu dela erreklamazioa jartzean edo kautelazko neurriak eskatzean, erreklamazio-egileari isun bat ezartzea erabaki ahalko du; Auzitegiak justifikatu egin beharko du, betiere, zer arrazoirengatik jartzen dion isuna eta zer zirkunstantzia hartu dituen kontuan zenbatekoa zehazteko. Isuna jartzeko, nahitaezkoa izanen da erreklamazioan adierazitako pretesioak guztiz ezetsi izana.

Isunaren zenbatekoa 1.000 eta 15.000 euro bitartekoa izanen da, eta zenbatekoa zehaztuko da hautemandako fede txarraren eta interes publikoari zein gainerako lizitzaileei eragindako kaltearen arabera. Idatz-zati honetan adierazitako zenbatekoak bi urtean behin eguneratuko dira, Nafarroako Gobernuan ekonomiaren arloko eskumena duen kontseilariaren foru aginduz, Estatistikako Institutu Nazionalak kalkulaturako kontsumoko prezioen indizea aplikatuta.”

Hamar. Hamabosgarren xedapen gehigarria eranstean zaio Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeari. Testu hau izanen du:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Entitate eta elkarte kultural irabazi-asmorik gabeen parte-hartzea Nafarroako toki entitateek antolatutako

edo sustatutako jarduera kulturaletan, festa-arlokoetan, artistikoetan eta folklorea hedatzekoetan.

Foru lege honen aplikaziotik salbuetsita gelditzen dira kasuan kasuko udaleko entitate eta elkarrekin kultural irabazi-asmorik gabek, hala nola musika-bandak, dantza-taldeak, txarangak eta antzekoak, Nafarroako toki entitateek antolatutako edo sustatutako jarduera kulturaletan, festa-arlokoetan, artistikoetan eta folklorea hedatzekoetan parte hartzen dutenean, eta parte-hartze hori, zeinak ez baitu ordain-izaerarik izan, horretarako sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten babesean gauzatzen denean; hitzarmenok diru-laguntza publikoen arloko legedian xedatutakoarekin bat formalizatzen ahalko dira.”

Xedapen gehigarria. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“4. Halaber, zilegi izanen da aurreko idatz-zatian aipatutako bermea ez eskatzea sindikatuei eta enpresa-erakundeei, Nafarroako Lan Gatazkak Konpontzeko Epaimahaia fundazioari eta irabazteko asmorik gabeko kultur entitateei, kasu bakoitzaren inguruabar bereziak kontuan izanik ekonomiaren eta ogasunaren arloko kontseilariak hala erabakitzen duenean”

Xedapen iragankorra. Hasitako prozeduren tramitazioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasitako prozeduren tramitazioak aurreko legeriarekin jarraituko du.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2014ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2014ko maiatzaren 23ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixoen eta haien laguntzaileen satisfazio-inkestak presta ditzan, 2014ko ekainetik aurrera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixoen eta haien laguntzaileen satisfazio-inkestak presta ditzan, 2014ko ekainetik aurrera." Erabakia heldu da Sozialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebaluazio jarraitu bat egin dezan, satisfazio-inkesten bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-zentroetan ematen den janariaren kalitateari buruz, zeina funtsezko osagaia baita gaixoen sendatze-prozesuan. Inkesta horiek ospitaleratze-momentuan emanen zaizkie gaixoei, gainontzeko dokumentazio eta tresnekin batera, eta ospitale-egonaldiaren beste alderdi batzuen gaineko iritzia

ere jaso ahalko dute, uneoro konfidentziasuna bermatuz. Inkesten xedeari buruz eta horiek ospitale-egonaldian zehar betetzeko aukerari buruz informatzeaz osasun arloko langileak arduratuko dira, bai eta senda-agiria eman baino lehenago gogorarazteaz inkesta betetzea garrantzitsua dela balizko akatsak zuzentzeko eta erabiltzaileak sumatutako zerbitzu-kalitatea hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Mediterránea de Catering enpresa presatu dezan esleipen-lehiaketan adierazi zuen konpromisoa betetzeko eta inkestak ere egiteko, sei hilabete behin gutxienez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabete behin inkestak egin diezazkien, 2014ko ekainetik aitzina, Mediterránea de Catering enpresako zein Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko dietistei, bai eta gaixoen elikadurarekin zerikusia duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultati-boei ere."

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudi bat egin dezan “familia gurasobakar” izaeraren aitorpena arautzeko, behar diren laguntzak eta babes sozial eta administratiboak jaso ahal izateko aukera izan dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudi bat egin dezan ‘familia gurasobakar’ izaeraren aitorpena arautzeko, behar diren laguntzak eta babes sozial eta administratiboak jaso ahal izateko aukera izan dezaten.” Erabakia heldu da Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du araudi bat egin dezan ‘familia gurasobakar’ izaeraren aitorpena arautzeko, behar diren laguntzak eta babes sozial eta administratiboak jaso ahal izateko aukera izan dezaten”

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia betetzeari eta beste jarduera batzuei dagokienez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Esako urtegia betetzeari eta beste jarduera batzuei dagokienez.” Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Esako urtegia ez dezan bete kota seguru baten gainetik, presaren inguruko lurren ezegonkortasun arazoaren arrazoia zein den jakin arte eta presaren ezegonkortasun arazoak konpondu arte.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu azterlan independente bat egin dezaten Esako urtegiaren segurtasunari eta urtegiaren ezegonkortasun arazoaren konponbideari buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die Esako bizilagunei, eta bereziki Esako urtegia handitzeko obrek kaltetutakoei. Nafarroako Parlamentuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen du kaltetuei ordain urgentea eman diezaien, epe labur batean eta jarduera egutegi batekin”

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zorionak ematen dizkio “América 66” mendi-ehiztarien erregimentuari, bere 250. urteurrenean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zorionak ematen dizkio ‘América 66’ mendi-ehiztarien erregimentuari, bere 250. urteurrenean.” Erabakia heldu da Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko maiatzaren 23ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak, Foru Komunitatean egoitza duen ‘América 66’ mendi-ehiztarien erregimentuaren 250. urteurrena dela-eta, bere esker ona helarazi nahi die erregimentua osatzen duten gizon-emakumeei, bai eta Indar Armatuen osotasunari ere, 1978ko Espainiako Konstituzioaren mandatuarekin bat egindako lanarengatik eta, oso bereziki, nazioarteko hainbat misiotan parte hartzeagatik, bakegintza- eta berreraikuntza-lanetan eta laguntza humanitarioa emateko operazioetan, Nazioarteko Komunitatearen babespean”

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da normalizazio- eta bizikidetasun-politika bat bultzatzean.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuzak Garcia jaunek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da normalizazio- eta bizikidetasun-politika bat bultzatzean.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Ebroren arroko 2010-2015 Plan Hidrologikoa errefusatzeko du.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Ebroren arroko 2010-2015 Plan Hidrologikoa errefusatzeko du.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko ekainaren 12an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Santos Cerdán León jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulke-

tari buruzkoa zen, eta 2014ko maiatzaren 30eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera
